

AGINAGAN, ZAHARRAK BERRI


—

memoria

GRAL | 2021eko uztaila

ZUZENDARIA: Ibon Salaberria San Vicente | EGILEA: Maddi Manterola Ubillos

Labur - labur.	01
Aginaga. Testuingurua.	02
Helburua eta estrategia.	07
Zehaztapen teknikoak.	09
Orokorra.	11
Gertutik:	
-Erribera.	12
-Herria.	14
Bibliografia	28



ZER?

Aginagak behin izan zuen produkzio indarra berreskuratu nahi du proiektuak.

Garai bateko Erriorearen intentsitatea berreskuratu, orduko eskakizunak bete zituen bezala egungoak ere bete ditzan: lan, hornikuntza eta energia iturria izatea. Horrela, Herriaren identitatea osatzen duen paisaia berreskuratu nahi da. Aginagan, zaharrak berri.

NOLA?

Uraren zikloa da proiektuaren ardatza. Horren euskarri izango den azpiegitura bat proposatu da: kode irekiko estalki sistema bat.

Erriberan hasi eta Herriraino iritsiko den akueduktua. Baliabideen elkar-truke bat ahalbidetuko duen sistema.

NORENTZAT?

Egungo eta etorkizuneko agiñarrentzat.

Nahiz eta proiektua leku konkretutik abiatzen den, Aginagaren egoeran dauden hainbat herri daude Euskal Herrian. Azken aldiko arkitektura interbentzioen joera estandarizazio eta homogenizazioa izan dira. Aginaga bezalako herritxoek duten zerizan eta aberastasuna galtzen dute horrela.

NON?

Aginagan. (Oria ibaia, Gipuzkoa, EH).

Errioa beti izan da Aginagaren bizi iturria. Kostarik gabeko itsas herria da. Haren ogibide nagusiak Erriotik zetozen baina egun produkzio horiek gehienak itzaltzen joan dira.


ZERGATIK?

Herria pixkanaka itzaltzen ari delako.

Biztanleria zahartzen ari da eta ez dago gazteak erakartzeko eskaintzarik.

Usurbil

paisaiak sortu duen kultura materiala oso aberatsa da:



HARITZA	PAGOA	PLATANONDOA	ARKAZIA	HURRITZA	GAZTAINONDOA	SAGARRONDOA	BANBUA	PINUA	IZEIA	ALTZIFREA			
Hostozabalak	Hondarra	Hondarraren garraioa	Errota - Burdinola	Untziola	Hondar biltegiak	Ur biltegiak (gobadarriak)	Aingira	Angula	Izkira	Baratza	Larre eta belardiak	Koniferoak	Garrantzi Komunitarioko Lekua (Natura 2000)-inundagarria




1936an Aginagako anguleroak.



Aginagako anguleroa zubitik zelatan.



1983ko abuztuaren 26ko uholdea. Mapil baserria.



Ur bazterreko ontziola tradizionala 1920ko hamarkadan.



Gaur egungo alaleku bat.



Baratza gehienetan goteo sistema ezarri dute.




Ureztatze sistema honek 20x20zm-tako modulazioa du bere baitan.



Norberak eginiko asmakuntzak ur hornidurarako.




Baratzak, zuhaitziak eta abereak daude Erriberan.



- inundagarritasun muga (10 urte) ---
- goteo sistema ezarri duen baratza [diagonal hatching]
- goldearekin mugitutako lurra [cross-hatching]
- ureztatze sistemarik gabeko baratza [horizontal hatching]
- belardia [solid grey]
- sagarrondoa [dotted grey]
- negutegia [white]

haranaren ebaketa




- inundagarritasun muga (10 urte) - - -
- lurzoru hiritarra
- lurzoru urbanizagarria
- garrantzi komunitarioko gunea (NATURA 2000 sarean)

Hirigintzak Aginagan ez du lekuko aberastasun eta logika jarraitu.


Identifikatu, mugatu eta babestu du "estrategikoa" eta biologikoki oparoa den gunea. Hainbat ekimen eta plangintza jarri dira martxan gunea mantentzeko (Errioa bizi! adibidez).

Dena den, preserbazio hutsa da plangintza hauen helburua. Proiektu honek guneak garai batean izan zuen indarra eta produkzio potentzia berreskuratzea du erronka. Izan ere, uste da horrela mantenduko dela hoberen paisaia.



HELBURUA: Aginagak iraganean izan zuen produkzio indarra berreskuratzea XXI. mendeko testuinguruan. Aginagan, zaharrak berri.

ESTRATEGIA: Uraren zikloa ardatz hartu eta berrantolatu, Erriberan jaio eta Herri nukleoraino hazten den estalki azpiegituraz.
Zentzu zabalean ulertzen den hartu-eman sistema bat egituratuko da.




Estalki bat da azpiegitura. Estalkiak teilatu oina eta teilatupeko espazioa sortzen ditu:


- teilatua: uraren zikloaren euskarria izango da (eskeman urdinez ageri da).
- teilatupea: gainerako elkar-truke espazio/sareak egongo dira bertan (eskeman grisez ageri da).

EGIN DEZAGUN


hezurdura 5 pausotan




1. zimentu piezak ezarri.




2. zutabeak sartu zimendutan.




3. zeharkako habexkak kokatu zutabeen alde bietan.



4. luzetarako habeak zutabeei eutsi.



5. luzetarako habe perimetralak bi ertzetan.




Badugu hezurdura

Garrantzitsua izan da teknologia baxukoa izatea bai mantentzen den hezurdura, eta baita gehitzen diren osagarriak ere.


Egunerokotasunari lotua bai eskalan eta baita materialetan ere. Ulertzen erraza, eraikitzeko argia eta bertako baliabide eta jakintzetatik elikatutakoa.

Azpiegitura gainjartzen den artefaktu bat izanda ere arrotza suertatu ez dadin.

Sekzio hau izango da proiektuaren oinarria. Etengabe errepikatuko den formula.




Azpiegituraren hezurdura.



A aukera: euri ur biltzailea.


B aukera: solairua.

C aukera: araztegia.






Erriberaren antolaketa:


- inundagarritasun muga (10 urte)
- goteo sistema ezarri duen baratza
- goldearekin mugitutako lurra
- ureztatze sistemarik gabeko baratza
- belardia
- sagarrondoak
- negutegia







haranaren ebaketa

uholdeen aurrean azpiegiturak:

-  azalera inundagarria
-  azalera berreskuratua
-  ura bildu eta isurtzeko puntuak






ureztatzeko uraren jatorria:

-  azpiegiturak bertan jasotako urarekin ureztatua
-  azpiegiturak jasotako ura garraiatuz ureztatua
-  herrian jasotako urarekin ureztatua
-  nequtegietan jasotako urarekin ureztatua



ureztapen sarea:

-  nequtegia



Azpiegituraren trazadura definitzeko kontutan izan diren faktoreak:



- baratze partelazioa (estuena 12m zabal).
- bide sarea (3 metro zabal).
- inundagarritasuna (10urte).
- bertako produkzioa: nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza.

Baliabide guztiak (Erria, baratzak eta bideak) zeharkatzen ditu arkitekturak eta momentuko programaren beharretara moldatzen da. Jarduera horietatik jasotako lehengaien zirkulazioa ere egituratzen du.

Goteo sistemaren modulazioa (20x20zm), partelazioaren neurri minimoa (12 m) eta bideen zabalera (3m) izan dira hezurdura moduluaren neurrien zergaitia (3x6m).

Azpiegiturak Eriberan baratzeen ureztatzeko sistema hornitu behar du. Herrian araztutako ura ekartzen du eta euri urak biltzen ditu. Urteko kuantifikazio bat egin da sistema buruaskia dela frogatzeko:



prezipitazioa L/m ²	estalki azalera m ²	jasotako ura L	herritikoa L	ur kop guztira L	ur eskaera (l/m ²)	lorturikoa ura L
1476	20004	29.525.904	2.882.462,4	32.408.366,4	155,40	32.006.339,4




12
10
8
6
4
2
E: 1/300

12


1




atxikitako negutegia




dorrea




abereen gunea




- ontziola
- negutegia
- dorrea
- alalekua
- turbina elektrikoak
- abereen gunea
- uholdeetako ur bilketa/hustuketa puntuak
- uraren bideraketa norantza




ontziola



alalekua




turbina elektrikoak (648kWh/urte)



- <1900
- 1960.hamarkada
- 1970.hamarkada
- 2003

Nukleoa osatzen duten eraikinen garaia aztertuta agerian geratzen da hirunakako taldetan osatu zirela multzokatzeak. Haien artean 15-20 metro inguruko tartea utzi zuten.


60.hamarkadatik aurrera hutsunea betetzen hasi ziren 2003an bi triangeluen arteko frontoia eraiki zen arte.



Interbentzioa herri nukleora mugatuko da hori delako espazio publikoa duen gunea.

Nukleo aldeolarra da: 2 triangelutan dago egituratua eta tarte espazio zabala dago eraikinen artean. Izan ere, egitura aldeolarren ezaugarria da hutsaren eta betearen arteko oreka mantentzea.


Espazio hutsak beteak bezain preziatuak dira, bertan jarduera produktiboak lekutzen direlako. Tradizionalki lehen sektoreari bideratutakoak.



Azpiegitura herri nukleoan barneratzen da eta metabolismo bizi bat bezala hasten da hedatzen. Zeharkatzen dituen eraikinetara itsasten da haien euri urak xurgatzeko eta albeoloetan asentatu egiten da.


Asentamentu horietan hedatu egiten da eta metagailuak sortzen dira; teilatuan araztegi, teiltupean "hondakinen" elkar-truke espazio/ostalaritza txiki/biltegi diren espazioak.

Gora eginda azpiegitura Puntapaxera atxikitzen da; teilatuan araztegia, teiltupean hondakinen balioberritze eta berzirkulazio tailerra.




Azpiegitura hedatzea inguruan dituen espazio publikoen azalaretaraino iristen da. Metagailuen eta Puntapaxen inguruko espazioetan zoru proiektu bat egituratzen da:

- Estalkien kotatik gorako azalaretan zoladura iragazgaitza jartzen da eta araztegiara bideratzen da euri ura.
- Estalkitik beherako azalaretan zoladura iragazkorrak kokatzen dira, ura bere kasa filtratzeko.




Ur grisa: etxebizitzetakoa eta kaletik jasotakoa.
Ur araztua.



programa:



- elkar truke/desmuntai gunea
- ostalaritza txikia
- merkatuaren biltegia
- mankomunitate eskalako hondakinen kudeaketarako edukiontzien espazioa



hego mendebaldeko altxaera





ipar mendebaldeko altxaera




Azpiegitura frontoira atxikitzean merkatu modura erabili daitekeen espazioa sortzen du. Garraiatzen duen elektrizitate eta urarekin ahalbidetuko da merkatu mugikorraren hornikuntza.


Azokak alboan A metagailua dauka, eta bertan biltegitratu ahalko dira merkatuak eskatzen dituen elementu eta lehengaiak.

Azoka eguna ez denean, gunea estalitako espazio huts bat izango da.









Ur grisa: etxebizitzetako eta kaletik jasotakoa.
Ur araztua.





- programa:
- elkar truke/desmuntai gunea
 - Erriberako lehengaien biltegia
 - jantokia
 - mankomunitate eskalako hondakinen kudeaketarako edukiontzien espazioa




hego mendebaldeko altxaera



ipar mendebaldeko altxaera









Azpiegitura Puntapaxera atxikitzean hondakinen balioberritze eta berzirkulazio tailer bat sortzen da.

Badira egunerokoan hondakintzat hartzen ditugun elementuak, eta horiekin nora jo ez jakinda zabor moduan kudeatzen ditugu. Tailer honek elementu horiek erreskatatzen ditu.



Puntapax hiltze txikien enpresa utziaren nabeaz baliatuta, hormigoizko portiko egiturara moldatzen da atxikitakoa, eta 5 gune bereizten ditu (behetik gora): harrera/bulegoa, beirazko botelak garbitzeko gunea, arotzen tailer/denda, informatikoen tailer eta erreparazio gunea, eta jostunen tailer/denda.

Tailer hauetan edo elkar-truke espazioetan aprobetxatu ezin den hori mankomunitate eskalako hondakinen kudeaketa sarera bideratzen da. Izan ere, ez da jasagarria horrelako dentsitate baxuko gune batean kudeaketa horiek gauzatzea.





ipar mendebaldeko altxaera



hegoaldeko altxaera

Inmminent commons: the expanded city.
2017, Seoul Biennale of Architecture and Urbanism.

Inmminent commons: urban questions for the near future.
2017, Seoul Biennale of Architecture and Urbanism.

Architectural Design. 2018. Scarcity. Architecture in an age of depleting resources.



Aginaga. Errioko jarduerak eta bertako hiztegia.
2005, Jabier Pikabea.

Ur eta lur. Batzen gaituen ura.
2003, Lourdes Odriozola. eta S. Arrizabalaga Marin

Construcción naval en el País Vasco. Siglos XVI-XIX. Evolución y análisis comparativo.
DIALNET, 2002, Lourdes Odriozola.

Ferrerías guipuzcoanas: aspectos socio-económicos, laborales t fiscales (XIV-XVI).
DIALNET, 2001, Luis Miguel Díaz Salazar